

Txirritola

Aramaioko euskara elkarteak argitaratuta.
Udalak diruz lagundutako berripapera.

2000ko iraila - 2. zenbakia

**Datorren asteburuan piztu
txirritola, eta zatoz ondo
pasatzera!**

Iaz garai honetan buru belarri sartuta geunden Lore Jokoen ospakizunetan. Modu apalean baina aurten ere ospakizun haiek gogora ekarri gura genituzke.

Bestalde, Txirritola Euskara Elkarteak sortu berri da eta bultzada bat eman gura diogu. Eta martxan jartzeko ekintza batzuk prestatu ditugu.

EGITARAUA:

BARIKUA 22: Pello Zabalaren hitzaldia: tenporak, eguraldixe. Pleno Aretoan, 7etan.

ZAPATUA 23: Txikiteoa herriko trikitilariekin, **herri bazkaria** eskolapean eta bazkalostean animazioa. Menua: entsalada, marmitakoa, bertako pastela izozkiarekin, kafea eta kopak.

Prezioa: 1300 pezeta. Bazkarirako tikeak tabernetan salgai egongo dira, irailak 21 arte.

Dotore dotore egoteko **Txirritola kamisetak** salgai egongo dira, bai umeentzat bai nagusientzat.

**TENPOREK DIOTENEZ EGURALDI ONA ASEGURATUTA
DAUKAGU, BERAZ EA EGUN ON-ONA PASATZEN DUGUN!**

Motxila eta zapatilak jantzita abentura bila munduan zehar

AZKENALDI HONETAN HAINBAT ARAMAIOITARREK AUKERATU DITUZTE MUNDUKO TOKI EXOTIKOENAK UDAKO OPORRAK PASATZEKO. ORAINGOAN HIRU LAGUNEKIN EGON GARA ETA ABUZTUAN ZEHAR BIZITAKO ESPERIENZIA JASO NAHI IZAN DUGU. HALA ERE, EZ DITUGU AHAZTU NAHI AURTEN HERRIALDE BEREAN EDO BESTE BATZUETAN EGON DIREN BESTE ARAMAIOARRAK, BAINA TOKIA MUGATUA DENEZ, BESTE BATERAKO UTZI BEHAR. HONA HEMEN, BERAZ, JOSEBA JAUREGI, JOSU OLAIZOLA ETA ARANTZAZU RUIZ DE AZUIAK KONTATU DIGUTEN ISTORIO BITXIA.



Josu eta Arantzazu beleroan, irla batetik besterako bidaian

Josebak aspaldi zuen Peru ezagutzeko ametsa eta aurten errealitate bihurtu du. Josu eta Arantzazuk ordea, hasieran Bali edo Madagascar bisitatzeke asmoa bazuten ere, azkenean Cabo Verden izan dira abuztua osoan. Baina beraiantzat ez da lehendabiziko aldia izan, aurretik ere egonak dira Mexiko, Tibet eta antzerako herrialdeetan, beraz, hauek berez abenturero samarrak direla uste dugu.

Bidaiazteko eta herrialdeak ezagutzeko modua ez da gainera edonolakoa izan, joan eta etortzeko bidaia hartu, eta egunez egun aukeraren arabera plana egin. Gutariko asko ez ginateke ausartuko honela inora joaten, baina beraiekin egon ondoren, beharbada abenturero sena guri ere kontagiatu egin zaigu apur bat.

CABO VERDE

- Cabo Verdek 10 irla ditu baina Josu eta Arantzazuk 4 bakarrik bisitatu dituzte, "gure asmoa gehiago bisitatzeara zen

baina oso zaila da abioneta edo barkua bilatzea batetik bestera joateko" esaten digute. Sal izeneko irla da turistikoena, bertan daude hotel gehien baina bestetan bertako jendea bizi da, gehienak basamortu itxurakoak, "bai, Cabo Verde du izena herrialdeak baina berde gutxi ikusi dugu, Sao Vicente eta Santa Antao dira bakarrik berdeak, besteak basamortuak dira" dio Arantzazuk. Josuri, bestalde, bertako kultura eta mestizaje nahasiak deitu dio atentzioa, "ikaragarria da, han oso normala da beltzak begi urdinekin ikustea. Kultura desberdin asko elkartzen dira Cabo Verden eta hori asko igartzen da musikan esate baterako". Honen adibide gisa, Montron herria bisitatzeke aholkua eman digute, izan ere Montron izeneko frantsesa bertara exiliatu zuten mende hasiera eta gaur egun herri honetako gehienak dira haren senitartekoak: ile oriak, begi urdinak eta azalez mulla-

toak. Merez du hori ikustea, bai!

Bidai honetan onena, irla batetik bestera joateko belero batean eginiko bidaia dela esan digute, "100 urteko belero batean egin genuen bidaia asteburu osoan zehar, kapitaina eta guzti zuen. Guk, aukera izan genuen beleroko lanetan laguntzeko, eta itsasbarruan delfinak ondo ikusteko ere bai."

Baina txarrena ere ezagutu nahi genuke. "Niretzat kukaratzak" dio zalantza gabe Arantzazuk. "Beno, oso lasaiak direla, inolako prisarik gabe bizi dira, bankuan dirua aldatzeko ordubete itxoin behar da gutxienez, eta beste gauza guztietan berdin funtzionatzen dute" dio Josuk.

PERU

- Joseba arkeologiarekinn zerikusia duen edozein tokik erakarri du betidanik. Baina Peruk bazuen esanahi berezia beretzat, txikitatik etxean entzundako istorioetan behin eta berriz entzuten baitzuen. Izan ere, Jauregitar senitartekoak herrialde horretara joan eta bertan bizi eta hil ziren. Beraz, txikitatik zuen Josebak Peru ezagutzeko interesa. Aurten izan du aukera bertara joan eta hila-bete baino zertxobait gehiago bertan egoteko. Bera bakarrik joan da eta alde batetik bestera ibili da, gelditu gabe. "Ez dago inolako seguritatekerik, ezin zaitezke inotrekina fidatu, eta beti kontu handiarekin ibili behar da. Horregatik, ni gehienetan gaueko 8etarako erretiratzen nintzen eta goizeko betan jaiki" kontatzen du Josebak. Arkeologiaz

Herriko gazteen kezkek

maitemindurik, aukera paregabea izan du hainbat erruina bisitatzeko, besteak beste **Machupichu** famatua. “Zoragarria da, lau eguneko bidaia oinez egin ondoren heldu ginen bertara 600 lagun inguru. 50 kilometro oinez egin genituen, baina nahi duenak autobusez egin dezake bidaia” dio. Horretaz gain, mendi asko zeharkatu ditu Josebak Perun, eta Titicaca irla ere ezagutu du.

Bidaia onena komentatzeko eskatu diogu Josebari ere. “Bidaia bera egiteko izan dudana aukera da onena. Bestela, dena gustatu zait, oso gustoraz ibili naiz”.

Eta **bidaia txarrena**? “Beno, txarrena herrialde hura gaur egun nola dagoen ikustea izan da. Tristura handia eman dit hain herrialde aberatsa izandakoa gaur lur jota ikustek”

Hurrengo, nora?

Horixe da, hain zuzen, beraiei galdetu dioguna, eta erdi bromatan erdi serio-tan, “datorren urtean kuadrilan egingo dugu antzerako bidaia” esan digu Josuk. “Hori ondo legoke, baina oso zaila da horrelako bidaia kuadrilan egitea, bakoitzak gusto batzuk ditugulako eta gauza difenteak interesatzen zaizkigulako” dio Josebak.

Dena dela, bakoitzak badu bere toki idealak: Josu **Gran Cañonera** joango litzateke; Joseba **Mongolia** edo **Egiptora**; eta Arantzazu **Patagoniara**.



Jende ugari ezagutzeko aukera izan du Josebak Perun

Zer pasetan da auzuekin?

Auzoetako kontuek. Batzuetarako inportantiek, bestiendako herriz oso aparte geraketan dan kontu bat bakarrik. Eta diferentzia hau normalien iritzixe planteetan dauenan jatorriren arabera egoten da. Bi alde bereizten die, beti jatorriren kontuen hartute:

1. Ibarrako biztanle formal, elegante eta mentalitate-itxidunek. “Auzuek? Bai, beti kamiño-eskiñak garbitu bihera ta gasa ta uren tuberixak ipiñi bihera besteik eztaukie horreik.” Horixe izeten da komentario zabalduena. Gero, Aramaioxoko biztanlegoko parte oso handi bat bertan bizi dala konturetan die, eta Aramaioxoko patrimonio naturalan zati haundi bat bertakue dala. Orduen barkamen eske datoz. Berandu, bañe.

2. Auzoetara kanpotik asteburuetan bakarrik datozenak. “Domingero” legez, euren ortue zaindu eta etxe edo baserrirei bisitazio bat emun ostien hanka itten daue. Klaro, harei ez jakie interesetan auzuek ze izen daukon be, bertan integretan ez baide behintzet.

Eta bitxartien bertako biztanle prestu eta jatorrok, posta-zerbitzue astien behin

bakarrik jasoten doule, kaleko informazio desberdinetaz enteratu be ezkarela eitzen eta beste zenbait kontu. Eta gero, bertako jaixetara mozkorketan besteik eztaozen kaletarrak kontau barik. Aramaioxoko auzuek bizirik daz, eta holan jarraitxuko daue.

Logela herria?

Aurreko komentaixuei arrazoie emunez, nauek beste komentaixo bat dauket eitzeko herrixei buruz. Azken aldi hontan aldeko jendie etorri da Aramaioxoa “bizitzen” edo hobeto esanda lo itxen, ze egun osue kanpuen emun eta lo itxen etortzen die. Niri hori ondo pentsetan jat, baiñe horretako batzuk uste dauie herrixe berez trankile danez, ezin dala itxi jaleo apur bat armetan, eta geuk esaten doguna da herrixe bizik dauela erakusteko zarata apur bat atatie ez dala txarto etorten noizien behin. Aramaioxo ez da logela bat, eta aktibitate desberdiñek eitten jarraitxuko dau, kanpotarrek kontrakue esan arren.

Sinisten al duzu tenporatan?




**Ana Muñoa
Irakaslea**

Ez diet kasu haundirik egiten.



**Juanita Unzueta
Etxekoandrie**

Ez, nik fedeik bapez. Asko ekixen batek esaten euen tenporak eliziek inipittekuek ziela. Denporie onduen esauketan euienak, mendixen lanien ibiltten zienak zien, ikaskiñek eta pastoriek.



**Balento
Euskadiko Kutxako langilie**

Batez. Azkenengo tenporatan be, esan euien julixue ona eta agostue oso ona eingo euela eta eztoz uste guztiz azertau dauienik.



**Jon Arana
Langilie**

Zergatik ez? batzutan kunpliruten da eta beste batzutan ez, baina bai. Biebada len kasu geixau eitten jakuen. Oin jentiek oso gutxi daki horri buruz, hori dana ondo ulertxie zaille da.



**Ane Mondragon
Ikaslie**

Bueno, apur bat bai; bañe askotan eztaue igertzen.



**Glori Azpiazu
Arrain saltzailie**

Ez tenporatan, ezta telebisiñuek esaten dauenetan be.

BAZKIDE-SOZIO IZATEKO TXARTELA

(Urte osoko kuota 1.000 pezetakoa izango da)

Izen-abizenak:

Helbidea:

Banketxea:

Kontu korrentea:

ZURE SUJERENTZIAK HEMEN:



.....

.....

.....

.....